

¡BETOR ELEIZA!...

*Jainkoak berak paradisora
gizonarentzat dakar pakea,
berau jarririk erdi-erdiyan
seme maitetzat, doaiz betea:
baratz ortako lorez apaintsu,
baña Jaunari zorraz mendea,
ura zan noski sortu zitzaigun
lenen-lenengo atsegindea.*

*Baña galdu zan zorion-une...
eta geroztik, gose t'egarri,
bekaitz ta miñak, guda zorrotzak,
eriyotz eta airbeste larril...
Landare zimel, ekaitzak jo-ta,
legor ta zirpil dagoenari,
zer letzayoke, arbin abetan,
intza bezela, osasungarri?*

*Betor Eleiza!.., Erromapetik
betor bai, goruntz aldan lenena,
erakustera gizon guziyai
zorioneko bide zuzena...
Zu zera gure aterpe gošo
besoak zabal beti zaudena;
Jaunak egin-da ederra zeran
baratz loretsu atsegīñena.*

*Lurpean estu, atzaparpean,
bere ustetan, Erromatzarrak
euki nai ditu, asnasa gabe,
Jesukristoren sinismendarrak;
bañan alperrik amorraldiko
ernegutzarren katazka charrak...
Jainkoagana zuzen dijoaz
zuk dagizkizun antzi-negarrak.*

*Nola esna nik, zer onkarle dan
zure nekea?... Jainkoak daki
ori neurritzen, berau saritzen,
nola malletan bakotza jarri,
zeñi nekeen ordaña eman,
nolataz egin zoriongarri,
odol-jariyoz entzan ondoren
gero zeruban pisten danari.*

*Zuriak dira Pedro ta Paulo
Ines, Zezili, agurgarriyak:
zure-zuriak oyek zitzuzten
indar oparo arrigarriyak.
Zuriak dira martiri oyek
zure bularrez gogoz aziyak,
zuriak noski maite ditugun
zeruban dauden santu guziyak.*

*Eta oraindik mendean zaude?...
eta zotinka negar dagizu?
askatasunik, oraindik ere,
Erromatzarrak eman eztizu?...
Jainkoak ezin utzi zaitzanik
illunpe ortan, ondo dakizu
kateak puzka, burniyak autzi
t'atоз gugana guziz argitsu.*

*Pakea dator Eleizarekin,
orain ainbeste biarra dana,
Kostantinoren erabakiyak
oriše bera dakar gugana.
¡O Eleizaren ardurapeko
berak dagiyan gogozko lana!
zuk daragizu alde guzik
gizadiyaren biltze laztana.*

*Eduki nai det zentzuna bero,
azaldu nai-ta esker aundiya;
aitortu nai det, mami-mamian
senti ta maite dedan egiya:
Or dakust Ama, lokarri gabe,
aberats, eder, maitagarriya...
Jesukristori zor zayo noski
Elizakiko garaitz guziya.*

*Garaitsu bego, t'opa diyot nik
indar gaiztoak chetu ditzala,
t'iñoz neketan larri bagabiltz
a zer atsegir orren itzala!...
Bere semetzat, leyal izan-da,
maitaro beti gorde gaitzala,
t'esan ojuka: Gora Eleiza
Aita-Santuba nagusi dala!...*

RAMÓN INZAGARAY

